


INFLAZIOA

Kontsumoko prezioek beren erregistro negatiboak berresten dituzte

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Maiatzeko KPIa koronabirusaren pandemiak baldintzatu zuen berriro neurri handiz. Hala, INEk argitaratu dituen azken datuen arabera, adierazle hori %0,7 jaitsi da urte arteko tasan, egungo alarma egoeran erregaien prezioek izan duten beherakadaren ondorioz. Beraz, lau hilabeteko dezelerazioa eta bi hilabeteko aldakuntza tasa negatiboak jaso ditu kontsumoko prezioen indizeak jadanik.

KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko maiatza	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,7	-0,7
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	1,0	0,8
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	2,5	0,3
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,3	0,1
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	1,0	0,4
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-8,0	-1,5
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	5,5	0,4
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-16,9	-1,9

AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA



Inflazioaren jaitsieraren arduradun nagusiak erregaien prezio horiek izan zirenez, garraio taldea izan zen KPlaren bilakaeran eragin negatiboa izan zuena. Zehazkiago adierazita, talde horren aldaketa tasa $-7,6\%$ izan zen, aurreko hilekoan jasotakoa baino ia puntu bat txikiagoa, eta, oraingoz, petrolioaren prezioak azken asteotan izan duen goranzko zuzenketak ez du eraginik izan beraren bilakaeran. Aitzitik, beste talde batzuek, hala nola elikagaiak eta alkoholik gabeko

edariak eta etxebizitzak, goranzko eragin handiena izan zuten inflazio globalean. Hala bada, lehenengoek balio altuenak ($4,0\%$) erregistratu zituzten, baina aurreko hilabeteetan baino igoera apalagoa izan zuten, haragiaren eta arrain freskoaren prezioen beherakadak lagunduta. Azkenik, etxebizitzaren zerbitzuen prezioak sei hamarren igo ziren, argindarraren jaitsiera apirilekoa baino txikiagoa izan zelako.

KPI TALDE NAGUSIAK Urte arteko aldakuntza tasa. 2020ko maiatza

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	-0,7	-0,9	0,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,0	3,5	3,4
Edari alkoholik eta tabakoa	0,5	0,7	3,5
Jantziak eta oinetakoak	1,0	0,9	-0,7
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-5,6	-6,0	-1,3
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,1	0,4	0,7
Osasuna	0,6	0,3	0,9
Garraioa	-7,6	-8,0	-4,5
Komunikazioak	0,5	0,4	-0,8
Aisia eta kultura	-0,5	-0,1	0,3
Hezkuntza	1,4	0,8	0,3
Jatetxeak eta hotelak	1,1	1,8	1,5
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,0	1,6	1,7

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



Departamento de
Hacienda y Economía